

Borja Donnay [Gasteizko rokodromoetako langilea]

“Kirol batzuentzat beti du dirua Gasteizko Udalak, baina ez eskaladarentzat”

Borja Donnay naiz, 27 urteko gasteiztarra. Hiriko udal rokodromoetan egiten dut lan, baina irailaz geroztik langabezia nagoela esan daiteke. Izan ere, instalazioen kudeaketa penagarria egin du Udalak, eta guk eskaintako zerbitzua bertan behera utzi du behin-behinean. Rokodromoak 2019ko urtarrilera arte egongo dira itxita gutxienez; hortaz, ordura arte lanik gabe izango gara langileok, eta erabiltzaileek ezingo dute eskalatu.



Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
@eagirrebeng

Guztira bederatzi langile gara. Alde batetik, ART Arabako Rokodromo Teknikariak kooperatiba osatzen duten bost kideak daude, eta bestetik, enpresa horrek kontrataturiko lau langile. Horietako bat naiz ni. Azken bost urteetan ARTEk kudeatu ditu udal rokodromoak. Urtero udalak lizitazioa egiten du, eta orain arte ART soilik aurkeztu da. Finen, eskalatzaileen sektorea txikia da. Azken urteotan Hegoaldeko eta Ariznabarrako rokodromoetan aritu izan gara, eta orain hirugarrena ireki behar zuen Udalak, Salburuan; 130.000 euroko inbertsioa egin ondotik, eta urtebeteko atzerapenarekin.

Ordea, bere diru-laguntza ez da egoizten egoera berrira. Alegia, ez da proportzionala. ARTEk kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea, langileen soldatei eustea eta sarrerak ez garestitzea nahi du, eta Udalaren baldintzek ez dute horretarako aukerarik ematen. Rokodromoetarako aurrekontua handiagoa izatea eskatzen du ARTEk, baina Udalak ez du horretarako inongo asmorik erakutsi. Ondorioz, deialdira ez da inor aurkeztu eta rokodromoak itxi egin dira behin-behinekoz.

2019 hasieran beste lizitazio bat egi-tera derrigortuta dago Udala, eta ikusi beharko da zer jarrera hartzen duen orduan. Guk ez diogu itxura onik hartzen. Udalak ez du negoziatzeko jarrerarik, eta ART paretik kendu nahi duen susmoa dugu. Aldaketarik ezean, ART ez da aurkeztuko, eta orduan hiru aukera izango dituzte arduradun publikoek: diru-laguntza handitzea, beren gustuko enpresa pribatu bat aurkitzea, edo instalazioak gehiago pribatizatzea. Guretzako, aurrenekoa da baleko irtenbide bakarra, baina badirudi Udalak guztiz aldatu nahi duela kudeaketa eredua.

Mahai gainean jarri duen eskaintza onartuz gero, baldintzek nabarmen egingo lukete okerrera. Eta ez naiz diruaz ari bakarrik; denbora kontua ere bada. Izan ere, ordutegia murriztuko litzateke. Orain arteko baldintzekin gaitzen mantentzen lanak behar bezala egiteko eta jendeari kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Erabiltzaileek aukera zuten lasai eskalatzeko, eta hori arriskuan dago orain, ordu kopurua murriztuta, jendea pilatu egingo litzatekeelako.



Rokodromoak bideragarri egiteko, gure apustua behar bezalako zerbitzua eskaintzea da. Hala eginda, erabiltzaileak gustura daude, eta jende gehiago erakartzen duzu. Ez baduzu hori bermatzen, rokodromoek zentzua galtzen dute. Azken urteetan jende asko erakarri dugu, ikastaro ugari eta ordutegi zabala eskainita. Aurreko ikasturtean, kasurako, 1.000 erabiltzailetik gora izan genituen.

Langileok hiriko hainbat toki esanguratsu eskalatu ditugu, protesta gisa. Eskalada txapelketak antolatu ditugu bertan [argazkian]. Nolabait ere zerbitzua eskaintzen jarraitu dugu, eta era berean, egoera bidegabe hau salatu. Erabiltzaileek, berriz, rokodromoak hiruzpalau orduz okupatu dituzte, 300 bat pertsonaren artean, eta asanbladak egin.

Rokodromoak modu sozial batean kudeatu ditugu guk, eta hori asko eskertzen digute erabiltzaileek. Haien ere egoera bidegabe dela uste dute. Badakite Udalak bazter utzita duela eskalada. Kirol batzuentzat beti du dirua, baina ez eskaladarentzat. Eta ez gara ezinezko kopuruak eskatzen ari. ■